

SANTIAGO BIDEAN

Joxemari Iturralde

Irud: J. M. Mata

Ibaizabal, 2007

263 orrialde

gazteentzat

Bizitza bidea denean

“Erabakiak hartu egin behar dira.” esaldiarekin hasten da Joxemari Iturralderen azken nobela hau. Izenburuak berak dioen bezala Santiago bidearen inguruan eraikitako nobela dugu. Protagonista, hamazortzi urte betetzear dituen gazte bat, Santiago bidean abiatzen da Orreagatik eta berehala, lehen pertsonan narraturik dagoen istorioan, barneratuko gara bidean... eta protagonistaren bizitzan.

Etxeko egoeratik eta bere egunerokotasunik ihes egin nahian, edo pentsatzeko, lasaitzeko eta bakarrik egoteko tarte bat hartu nahian, gure protagonista Orreagatik abiatzen da eta bidearen narrazioan Iturraldekin historia kontuak, toponimiarenak, gertakariak, protagonistaren gogoetak, sentimenduak, albiste bitxiak, herri, monumentu eta lekuen deskribapenak... konbinatu ditu maisutasunez narrazio arin eta entretenigarria lortuz. Are gehiago, bada, erabat lortu ez arren, misteriozko historia bat ere irakurlea harrapatzearen eraikitako sare honetan.

Edozein modutan bidea bera eta protagonistari jazotakoak dira nobela honen oinarri sendoenak. Irakurleak bidea egiten laguntzen duen sentsazioa du; eguneroko ibilaldian parte hartzen duela, bidaiaren plazerean eta nekean bat egiten baitu protagonistarekin (eta horretan badu eragina nobela lehen pertsonan idatzita egoteak). Egunez egun eginiko ibilaldietan hainbat herri, ermita, txoko eta paisaia ezagutzeko parada izango dugu (baita bertako hamaika istorio entretenigarri entzuteko ere, hala nola Eunete eta tenplarioena, Papamoscasena, Los Arcoseko uraren kalitatearena, eta abar); baina, arestian aipatu bezala *Santiago bidean* hau protagonistaren historia dugu. Gurasoen eztabaidetatik urundu eta berarentzat tarte bat hartu nahi duen gaztearena, baina baita bere lagunekin eta gainerako erromesekin dituen harremanena eta, neska batzuekin – Susana bere neskalagun ohiarekin eta Renata bidaiari ezagutu duen holandarrarekin dituen harremanena. Alde horretatik aipatzekoak dira sexu harremanen deskribapenak, gazte literaturan hain urriak, eta Iturraldekin ederki azaldu dituenak. Ikusi, adibide gisa, protagonistak Susanarekin eginiko paseo batean jazotakoa kale estu batean: “Egia esateko nire galtza motzak bakarrik jausi dira lurrera ia inoren laguntzarik gabe. Izan ere, ordurako zakila guztiz tente neukan, erabat harrotua, gorantz apuntatzen eta zulo baten bila. Berehalaxe jaitsi ditut galtzontziloak eta ez dugu denbora gehiegi galdu nikia erantzten. Bere kulerokak ere ez zeuden normalean egon ohi diren lekuan, eta bidea erabat libre aurkitu dut ordurako.

Atzera eta aurrera hasi gara segidan eromenez, biok zutik aldika hormaren kontra eta aldika atetzarraren aurka geure gorputzak kolpatuz. Susanaren bular handi, borobil oparoak aurkitzen nituen erasoaldi bakoitzaren ostean leungarri gisa (...) Sartu-irten horrek, ordea, bere akabera izan du noizbait, bi nire zakilarentzat behintzat.” (77-78 or.) Liburuak, gure artean ohikoa ez den luzera duenak, oso amaiera irekia du. Bidaiaren erdian, Burgosko herri batean, Renata eta haren lagunak atxilotetaren berri izan ondoren, protagonistak bakarrik bidean aurrera egitea erabakitzen du: “Eguzkiak bere aurpegi alaia azaldu nahi zuen zeruan. Santiago Bidean nengoen berriz ere, indarberrituta, animatuta. Ez nuen atzerantz begiratu behar.

Ultreya!” (263. or.). Eta ziklo bat amaitu den bezala, liburuko lehen esaldira itzularazten gaitu Iturraldekin, “Erabakiak hartu egin behar dira”, eta irakurlea, azken orrialde zuria

ikusi ondoren eta agian liburu honen bigarren zati baten zain, bere baitara itzultzen da, liburuarekin batera eginiko bidaiaz gogoeta egiteko, protagonistari harekin batera gozatu eta sufritu ondoren Bide On! opatuz.
Xabier Etxaniz Erle (2007-11-19an idatzia)